

«Galtzaundiren bertsoak misterio bat ziren niretzat»

FRANCISCO TUDURI ESNAI
'GATZAUNDI' LIBURUAREN EGILEA

Tolosako inauterietako pertsonaia ezagunenetakoa aztertu du tolosarrak; abestiaren jatorrizko zarzuela eta habanera ere ikertu ditu // 3

Hamahiru minutuko isilunea egin dute, lanean hildakoengatik

LAB sindikatuak deituta, aurten hildako langile kopurua salatzeke elkarretaratzea egin dute; lan ezbeharrak «ugalduz» doazela salatu dute // 6

Gizonezkoen Ibarra sokatira taldea txapeldun, 560 kiloko mailan

Euskal Herriko Txapelketa Mistoan hirugarren izan dira ibartarrak; egunotan, Munduko Txapelketan parte hartzen ari dira taldeko 22 tiralari // 7



INAUTERIAK DENA PREST

Mende erdia betetzen duen Incansables txarangako kideek txupinazoa bota eta Asteartita bitarteko festa hartzeko prest da Tolosa: kaleak inauteri kolorez, txarangen doinuez eta mozzoroez jantziko dira gaurtik aurrera // 2-3

ITZEA URKIZU

1924

ECEIZA
T O L O S A

Rondilla 34, 20400 Tolosa San Frantzisko pasealekua 8, 20400 Tolosa

943 65 51 61 943 65 19 16

www.eceiza.eus

Bizi Ostegun Gizeneko Txupinazoa 11:30ean ataria.eus-en

elkarlanean Zuzenean Plaza Zaharretik

KOMIKIA GORKA SALABERRIA

**Rebeka Calvo Gonzalez**

Inauterietako moztorroei azken ukituak ematen harrapatu dugu Lierni Carrera Iraola (Tolosa, 1982). Inauterizalea da txiki-txikitatik eta gurasoek dute ardura; aita iazko Kabi Alai Kuttunako Zaldunita taldeko kidea izan zen eta amak jantziak josi eta osatzeko ardura izaten du urtero.

Zer dira zuretzat Tolosako inauteriak?

Gauza asko esango nituzke, baina laburbiltzeko eraldatzen gaituzten egun bereziak direla esango nuke. Inauterietan azken finean, egunerokoan egingo ez zenituzkeen gauza asko egiten dituzu lasai asko. Zaindu behar dugun altxor bat dira Tolosako inauteriak.

Betidanik bizi izan dituzu?

Txiki-txikitatik. Oso inauterizalea izan naiz beti, eta aitarengatik datorkit asko. Aita Zaldunita taldeko kideetako bat zen eta urte askoan egon gara Iparragirre aurrean ikuskizunak ikusten, musikarekin gozatzen...

Oroitzapen onak dituzu, beraz.

Zaldunita taldearen eta aitaren oroitzapen oso onak ditut. Zoritarrez aita duela urte gutxi joan zitzaigun, baina oso gogoan dut nola ibiltzen ziren azken momentuan korrika eta zalapartan moztorroei azken ukituak ematen, azken orduan josi eta josi. Lizardi elkartarekin ere familia asko ateratzen ginen, gurasoak eta haurrak, eta oroitzapen oso onak ditut. Garai hartako moztorro asko ditut oraindik gordeak, eta aurten ilusioa berezia egiten dit lau urte nituela erabili nuen Maskaradako



Charlot pertsonaiaren moztorroa josi zion amak bi bat urte zituela. ATARIA

Zamaltzain moztorroa nire seme-etako batek eramateak.

Ezinbestekoa al da inauterietan moztorrotzea?

Bai, inauteriak moztorrotu gabe, ez dira inauteriak. Ni ez naiz dendara joan eta goitik beherako moztorro bat erostekoa. Nahiago dut daukadan zerbait eraldatzea, gauzak kendu eta jartzea, bigarren eskuko dendan moldatu daitekeen zerbait hartzea... aurreko lan hori egitea dut gustuko.

Noiz hasten zara urduritzen?

Data badatorrela ikusten dudanean; prestatzeko dituzun moztorro eta osagarriak mahaian ikusten dituzu bueltaka eta urduritzen zara. Baina inauterien xarma hori ere bada; azken momentuan hari eta jostorratzarekin bueltaka ibiltzea, azken momentuan josten.

Txilaba ala buzoa?

Zalantzarik gabe txilaba. Buzoaren moda hori ez zait gehiegi gustatzen. Niretzat Tolosako inauterietako parte da txilaba. Nik Ostegun Gizenean, Ostiral Mehean eta Zaldunita bezperan janzten dut.

Nik uste dut txilaba indartzen ari dela gazteen artean, eta poztzen naiz. Heldu asko ikusten ditut ezer gabe, eta pena ematen dit, ez da ezer kostatzen txilaba jantztea.

Zein egun duzu gustuko?

Ostegun Gizena asko gustatzen zait, txupinazoa eta hori, asko gustatzen zait. Eta batez ere, egun horretako zezen plazako txarangen irteera gustatzen zait. Niretzat Ostegun Gizena tolosarron eguna da, eta egun horretan San Frantzisko pasealekuan, errepi-detik, saltoka jaitsi ahal izatea oso berezia da. Zoragarria da momentu hori. Zaldunita eguna ere asko gustatzen zait. Moztorrotzen zaren lehen eguna da, atzetik egin dako lan guztia kaleratzen duzun eguna da, eta berezia da.

Gustatzen al zaizkizu txaranga doinuak?

Askok, eta herrian txaranga asko ditugu, sekulako zortea daukagu. Tabernetako musika urte guztian zehar dago hor. Niretzat inauteria da kalean eta txarangen inguruan egotea. Edozein doinuekin hasten naiz saltoka kalejiran, baina egia da aitarengatik edo, Pintxana eta Lizardiren abestiak asko gustatzen zaizkidala.

Zer falta zaie inauteriei, edo soberan al dute zerbait?

Ez nuke ezer nabarmenduko, baina bai aipatu izan dugula azken urteetan Trianguloa inguruan sortzen den burrunba ez zaigula gehiegi gustatzen. Gazte asko jartzen dira hor, geldirik, edari askorekin, ezer apartekorik egin gabe, musika oso altu dutela... niri ez zait gehiegi gustatzen, nik ez ditut horrela bizi inauteriak.

«Ostegun Gizena tolosarron eguna dela esango nuke»

LIERNI CARRERA IRAOLA
INAUTERIZALEA

Inauterietan moztorrotzea maite du Lierni Carrera Iraola tolosarrak. Jostea du gustuko eta ahizpa zein amarekin batera aritzen da horretan azken momentura arte, horrek ere badu eta bere xarma.

«Bizimodu zaila izan zuen gizon xumea izan zen Galtzaundi»

FRANCISCO TUDURI ESNAL 'GALTZAUNDI' LIBURUAREN EGILEA

Tolosako inauterietako pertsonaia ezagunenetakoa aztertu du Francisco Tuduri Esnal tolosarrak bere azken liburuan; pertsonaiak aparte, abestiaren jatorrizko zarzuela eta habanera ere ikertu ditu.

Joxemi Saizar

Santos Aldasoro Iriarte *Galtzaundi* (Etxarri Aranaz 1831-Tolosa 1899) pertsonaia aztertu du Francisco Tuduri Esnalek (Tolosa, 1945) bere azken liburuan. Abokatua lanbidez, historia du zaletasun eta aurretik ere argitaratu ditu eskualdearekin erlazio-natutako hainbat lan, Ski Club Tolosano, zezen plaza, Oria paper fabrika eta bera bazkide den Kabila elkarteari buruzkoak, besteak beste.

Nola sortu zen liburu honen ideia?

Galtzaundiren bertsoak, testamendu modura eginak izanda, misterio bat ziren niretzat. Protagonistaren ondorengoren bat aurkitzen saiatu nintzen, baina ezin izan nuen. 1870era arte elizako artxiboetan bilatu behar da, erregistro zibilik ez zegoelako. Bestalde, umetan hil ez zen alaba bakarria Madrilera joan zen bizitzera, bilaketa oso zaila eginez. Udal erroldak hor badaude. Industria erregistroak ere badaude, baina zapatarien kasuan denda zutenak agertzen dira, ez Galtzaundi eta Ramos Azkarate bezala kalean aritzen zirenak lanean. Urteak pasatu ditut, erabat horretan ezin naizelako aritu. Bilaketa erakargarria da, baina pazientzia handia eta denbora asko behar da.

Nola definituko zenuke Galtzaundi?

Abestiaren testuaren arabera, mozkor eta parrandazalea zela pentsa daiteke, baina gizon xumea zela esan daiteke, Juan Garmendia Larrañagak definitu zuen bezala. Bizimodu zaila izan zuen: kalean lan egiten zuen, sei seme-alabetatik bost umetan hil zitzaizkion, emaztea ere egoera bitxian hil zitzaion, etxek askotan aldatu zuen, Miserikordian bizitzen bukatu zuen... Mitifikatuta dago, inauteriarekin duen erlazioarengatik. Ramos Azkarate bezala, abestiaren letraren egilea.

Orain bere irudia jartzen dute kultur etxeko balkoian eta kanpaina baterako ere erabili dute irudi hori.

Ez dut uste panpina horrek Galtzaundi ordezkatzeko duenik, janzkera eta estilo hori ez zuen izango.

Zergatik aukeratu zuen Ramos Azkaratek pertsonaia hau bertsoak idazteko?

Zalantza hori daukat: Azkarate bera bere testamendu propioa egiten ari ote den, erdi brome-tan, edota ondoan duen lankideari jartzen dion, pertsonaia zerbait mozorrotuz. Une batean Goñi abizena duela esaten du, eta ez zen hala. Eta Galtzaundi deitzen dio, galtza motzegiak erabiltzen zituelako nonbait, barragarriak.

Nolakoak ziren gerra aurreko inauteria?

Garai batean Plaza Zaharrean



J.S.

egiten zen inauteria eta baserri girokoa zen, txistuak paper nagusia hartuz. Plaza Berria egin zenean, hara pasatu zen festa, inauteri hiritarragoa bihurtuz. Jendea ez zen mozorrotzen orain bezala, pierrot eta domino jantziak bakarrik izaten ziren. Maskara desfilea zen ekitaldi nagusia, Korreo kalean. Inork ez ezagutzea eta ondo pasatzea zen helburua. Jende askok hartzen zuen parte, leihoetatik konfeti ugari botatz. Eta kanpoko jendea etortzen zen. Donostiara Kasi-

noren desfile dotoreak ikustera joaten zen jendea, gero Tolosara etortzen omen zen ondo pasatzera. Liburuko azalean 1920 inguruko argazki bat jarri dut: hiru pertsona maskarekin. Bada hirurak emakumeak dira. Orduan maskararen babesean parte hartzen zuten. Gero galdu egin zen parte-hartze hori. Plaza Berrian bukatzen zen desfilea, bertan zezen festa izanik. Musika bandak jartzen zuen musika, plaza Zaharretik abiatuta. Rufo Montilla zen bandaren zuzendaria XIX. mende amaieran, gaur egun jotzen den errepertorioa jaso zuena. Villabonako banda ere etortzen zen laguntzera, bertakoak lan handia baitzuen: kalejirak, dantzaldiak Berdura plazan, zezenak... Horregatik daude errepertorioan habanerak, polkak, balsak eta erritmo lasaiagoak, dantzaldiak izaten zirelako. Txarangak, karrozak eta konpartsak askoz beranduagoak dira, gerra ondorengoak.

Garaiko musika giroa islatu nahi izan zenuten liburuaren aurkezpenean, udaletxeko areto nagusian.

Bai. Orduan emanaldi asko egiten ziren plaza Berrian zegoen antzokian, gero merkatua egon zen tokian. Gorriti antzokia baino lehenago. Orfeon Tolosanok han kantatzen zuen. Eta zarzuela eta antzezlanak han egiten ziren. Hor sortu ziren gero Donostiara eramane ziren Cultura Musical izeneko jardunaldiak. Eta kafetegietan, batez ere, Cafe de la Amistaden, Korreo kalean, pianoa izaten zen eta haren inguruan musika emanaldiak izaten ziren, garaiko doinuak abestuz edo beste instrumenturen batekin lagunduz. Jose Rogelen *El último figurín* zarzuelak arrakasta izan zuen eta batez ere habanera hori, *La perdiz* bezala ezagunagoa, estreinatu eta lau hilabetera bereizita argitaratu zutena. Doinu hori hartu zuen Ramos Azkaratek Galtzaundiren letra idazteko.



IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Garbiketa lanak. Tolosan esperientzia duen pertsona bat behar dugu Lizartzako enpresa bat garbitzeko. Astearte eta ostegun goizez. Kottoea izatea ezinbesteko baldintza da, baita esperientzia izatea ere. Interesatuak deitu 943 67 06 26 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

Usabal kiroldegian mantenu lanak egingo dituzte egunotan

Berazubiko kirol instalazioak zabalik izango dira inauterietan, Zaldunita egunean izan ezik; otsailaren 27an zabalduko dute, berriz, Usabal kiroldegia



Hausterre egunera bitarte itxita izango da Usabal; otsailaren 27an zabalduko dute. ITZEA URKIZU

Erredakzioa

Tolosako Usabal kiroldegia ohi-ko itxialdia egingo du, inauterietan, mantenu eta garbiketa lanak osatu ahal izateko. Gaurtik otsailaren 26ra, ezin izango dira Usabalgo kirol instalazioak erabili, baina Berazubiko azpiegitura zabalik izango da, Zaldunita egunean izan ezik.

Udalak gogora ekarri nahi izan du, geldialdi tekniko hori nahitaez egin beharrekoa dela, ur zonalde osoan: «Erabilera kolektiboko igerilekuen osasun araudia onartzeari buruzko 32/2003 dekretuak agintzen duenaren arabera, honako lanak egingo dituzte, astebetean, Usabalen: «urtegi eta konpentsazio tanke guztiak hustu, garbitu, desinfektatu eta

algen kontratu tratamendua eman». Aipaturiko dekretua legegionellaren prebentziorako neurria da, besteak beste, eta ezinbesteko baldintza du, ur beroaren sistema osoa hustea, eta geldialdian dagoela desinfektatzea.

Enpresa espezializatu bat ariko da, kirol instalazio guztian barrera, desratizazio, desintsektazio eta desinfekzio lanetan, eta suteen aurkako nahiz larrialdiei aurre egiteko sistemak ere gainbegiratu dituzte.

Segurtasun eta osasunari begirako lanekin batera, ordea, kiroldegian urte osoan martxan izaten diren azpiegiturak ere puntu-puntu jarriko dituzte: futbol zelaiko kautxua, sareak nahiz aulkiak; fitness aretoko

tresneria eta lurra; padeleko belarra eta hormak; saunako egurra; spa guneko baldosak eta, oro har, hondatutako guztia.

BERAZUBI MARTXAN

Inauterietan ariketa fisikoari etenik egin nahi ez dionak, Berazubiko kirol instalazioak eskura izango ditu.

Gaur, 09:00etatik 14:00etara izango da zabalik, eta bihar egun osoz: 09:00etatik 21:00etara. Larunbatean ere, eguerdian itxiko dute Berazubi, eta Zaldunita egunean itxita izango da. Asteleñitan eta Asteartitan, igande ordutegia izango du estadioak, 14:00ak bitarte, eta Hausterre egunean itzuliko da ordutegi normalera; 09:00etatik 21:00etara izango da zabalik.

Trafiko eta ordutegi aldaketak, inauterien harira

Erredakzioa

Herri erdigunea trafikoari itxita egongo da datozen egunetan, eta zenbait tren eta autobus linea indartu egingo dituzte, festak direla eta. Horrela, Tolosako Udalak argibideak eskaini ditu.

Lehenik, bisitariak San Estebango, Usabal kiroldegiko eta Usabal industriguneko aparkalekuetara bideratuko dituzte; doakoak, guztiak.

Garraio publikoari dagokionez, berriz, Rondilla kaleko 34 zenbakiko geltokia zerbitzuz kanpo geratuko da, eta ibilbide luzeko autobusak, Tolosaldekoak eta Hiribusa Santa Klaran ge-

ratuko dira, Zumardi Txikiaren ondoan.

Ordutegi zehatzak eskuragarri daude Tolosako Udalaren webgunean nahiz www.ataria.eus atarian.

UDATEN BESTELAKO ORDUTEGIA, INAUTERIETAN

Udate Herritarren Arreta Zerbitzuak ordutegi aldaketa izango du inauteriek irauten duten bitartean. Gaur, Ostegun Gizenarekin, 07:15etik eta 11:30etara bitarte izango da zabalik. Bihar, berriz, 07:15ean irekiko dute, eta 13:00etan itxi. Astelehenetik asteazkenera, berriz, itxita izango da Udate.



TOPIC-ENEGOSITAKO SARIA

Periferia Teatro konpainiak, Nube nube ikuskizunarekin, FETEN Haurren Arte Eszenikoen Europar Azokako Ikuskizun Onenaren Saria jaso du. Aktoreak eta txotxongiloak uztartzen dituen ikus-ipuina da, eta ikusle guztiei zuzendutako lana da. Ikuskizuna Topic zentroan sortu zen, bertan egindako sormen egoitza batean. ATARIA

ataria
argazki lehiaketa

Mozorro hoberenaren bila

ALDEKOA

Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus • ekoerabiltzaileen.saria

LURLAN
BASERRITIK ZURE ETXERA
DOL. KATERIA TIGELA

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atariakideen saria

✉ GUTUNA

Kritika, Villabonako EAJk

EAJren udal taldeak herri-tarren parte hartze prozesu bat martxan jartzeko proposamena babestu zuen, udalerriko kolektibo eta pertsona ezberdinek partida ekonomiko batzuen azken helmuga erabaki ahal izan zezaten.

Urtarrilaren 22an lehen batzar ireki batekin hasi behar zen prozesua, eta ez zen egin. Arrazoia ez zitzaion inori jakinarazi. Ondoren, gure udal taldeak jakin zuen, jada egin zenean, batzarra urtarrilaren 29an izan zela (gaur badakigu deialdia porrota izan zela). Alkatetzatik, eta hau gero eta ohikoagoa den praktika bat da, ez zitzaion ezer jakinarazi EAJ eta PSEko zinegotziei. Adostasuna lortu nahi duen prozesu bat abian jartzeko modu polita. Hori gutxi balitz, alderdi politikoa ez ziren bilerara deituak izan; Behar Zanak ordezkariek ere ez zituzten gonbidatu; Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzakoak ere ez; Odol Emaileen Elkartekoak ere ez. Beraz, galdera argia da: Norekin adostu nahi da deialdia ere egiten ez bazaie?

Desantolaketak nagusi izaten jarraitu du, eta hurrengo bilera, otsailaren 13rako aurreikusitakoa, bertan behera geratu zen, «talde gutxiak baieztatu zutela» argudiatuz. Eta horrela abiapuntura itzultzen gara: nori deitu zitzaion? Nola? Alderdi politikoei ez; Tira, zentzugabekeria bat. Azkenik, bilera otsailaren 17rako deitu zen (Elkarrekin Podemos eta beste eragile batzuk ere ez ziren deituak izan). Beatriz Unzué alkatea ez zen bilerara joan (honi buruzko azalpenik ez zen eman).

Akordioak lortu nahi direla esaten da, baina Bilduk EAJk udal aurrekontuei prestaturiko zuzenketei uko egin zien eta ez ziren gai izan lehenago gurekin biltzeko. Nahi adina proposamen egin ahal izango direla esaten da, baina alkatetzak ez ofizialki adierazten du «2 edo 3 proposamen» baino ez direla sartuko; eta, amaitzeko, Bilduk dagoeneko iragarri du prentsan «herritarren» proposamen horietako bat: Larreako parke estalia, 210.000 euroko kostuarekin. Ariketa demokratiko handia. Herritarrek erabaki baino lehen udal gobernua erabaki!

Horregatik, EAJren udal talde-tik eskatzen dugu, aurrerantzean, parte hartze prozesua informazio eta seriotasun maila handiagoarekin garatzea eta herritarren benetako parte hartzeak behar dituen berme guztiak izatea.

Maite Izagirre Amasa-Villabonako EAJ

Aitzpea Leizaola antropologoak, inauteriak hasi bezperatan, 'Mozorroaz haratago. Inauteriak Euskal Herrian atzo eta gaur' hitzaldia eman zuen asteartean Larraulen.

Mozorroaz haragoko begirada

Jon Miranda Larraul

Erantzunik ez eta galdera asko utzi zituen airean Aitzpea Leizaolak (Donostia, 1971) Larraulen. «Inauteriak akabera edo berpiztea dira? Gizaratearen isla? Ospakizun soila? Eta mozorroak, itxurakeria hutsa? Edo badago zerbait auzi estetikoz harago?»

Konstatazio bat aurrena: «Denbora neurtzeko modu baten azarna da inauteria». Lehenengo tentsioa ikusten du hor irakasleak, ilargi zikloaren arabera ospakizun «bakarrenetakoa» baita, eguzkiaren egutegira, eta hortaz data zehatzetara moldatuta dagoen gizarte batean. Erramu egunetik atzera 40 egun kontatu eta hausterre eguna oinarri hartuta, aurreko ostegunetik asteartera bitarteko epealdia dira inaute egunak. Zentzu «zurrunean» ulertuta hori, zabalago hartuta, ziklo osoa hartzen duen aroa baita inauteria, «Urtats egunetik Pazko igandera bitartekoa».

Festa «dinamikoa» da, halere, eta horren adibidetzat hartu du Ituren eta Zubietan duela urte batzuk hartutako erabakia. Ilargiaren egutegiari begiratzeari utzi eta inauteria beti urtarrila bukaeran ospatzea adostu zuten bi herrietan. Hori gertatu da Ituren eta Zubietako inauterian, Lantzekoaren batera, euskal inauterien ikur bilakatu den jaian. Aurreko mendeko 70eko hamarkadatik hona datorren joera sumatzen du horren atzean antropologia irakasleak: «Forma kanoniko eta tradizional bat interpretatu da euskal inauteri gisa, prototipo bat

sortu da». Ospakizuna zena, ikusizun bihurtua. Horra tentsioa, berriro, eta masifikazio edo turistifikazioaren arriskua.

Tradizioarekiko posizionamendua dago auzitan Leizaolak nabarmendu duenez. «Badago ideia bat ulertzen duena tradizioa iraganetik datorkigunarekiko jarraitortasuna dela, eta beraz, aldagaitza eta denboran zehar errepikatzen dena dela». Ideia horri kontrajarrita, inauterian izaera «dinamikoa» aipatu du berriro antropologoak eta baieztatu du tradizioak iraun dezan, «moldakorra eta aldakorra» behar duela izan. Testuinguruari oso lotua.

Bi irudi ekarri ditu EHUKo irakasleak hitzaldiaren hasieran horren erakusgarri: bata Tolosako Zaldunita eguneko argazkia da, eta bestea, Arizkongo inauterietan jasotakoa. Beste askoren artean bi. Neguko zikloaren festen barruan egiten diren eske errondak ere hartu dituelako gogoan Leizaolak. «Barrura begirako festak dira, komunitatea gorpuzten laguntzen dutenak». Horren adibidea ikusi ahal izan da aurreko asteburuan Lizartzan.

Neurri batean, forma tradizionalen bilketa eta berrinterpretazioa egin dute Lizartzan, Euskal Herriko beste hainbat herritan egin duten bezala. Altsasuko adibidea aipatu du Leizaolak baina baita Lizarrakoa ere. «Gizarte tradizionalako klabeak hartu dituzte, horretarako gaur egungo objektu modernoak erabiliz».

Inauterietan ageri diren pertsonaia horiek oso bestelako testuinguruetan, manifestazio, protesta ekitaldi eta ospakizunetan erabili izan direla ere gogoratu du Leiza-



Aitzpea Leizaola antropologoa Larraulgo liburutegian, asteartean. X. LASA / AIURRI

olak. Barruko esanahia gordez eta testuinguru berrietara moldatuz. Egokitzeko gaitasuna aipatuta, mutil ezkongabeen festa bat izatetik emakumeek rol guztietan parte hartzera pasa direneko saltoaz aritu da. «Beste lekuetan baino gatazka gutxiagorekin, baina nabaritu da beste tentsio bat, tirabira bat», aipatu du irakasleak.

Bertute hori baitu inauteriak, tentsio horiek guztiak azaleratzen dituela. Eztabaida soziala eta kritika bultzatzen ditu. «Inauteria-

ren iraultze gaitasunak egunero-kotasunean duen eragina aipagarria. Mozorroaren atzean itxuraz ikusten dena baino gehiago dago», dio Leizaolak.

Bukatzeran doanaren itxura hartuko du gaurtik aurrera munduak, munduak hausterre egunetik aurrera jarrai dezan. Ospakizunaren aitzakian, betebeharrak bata bestearen segidan etorriko zaizkigu eta mozorroaren atzean ustez ezkutatuta, inoiz baino ageriago utziko dugu zer garen.



Espezializatutako aholkulari
baten laguntza jasoko duzu zure
proiekturako materialaren aukeraketan.



Donostia Hiribidea, 17,
20400 Amara, Gipuzkoa
943 65 58 65



ISASTEGI
~ SAGARDOEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM

XVIII SAGARDO TXAPELKETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA SARIAK 2019 IRABAZLEA

TXOOOTX

ANIMATU!!

URTARRILAK 18
APIRILAK 30

TOLOSATIK AUTOBUSA



BIDANIA - GOIATZ

672 798 852

mikellasaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

Gasa

Berokuntza

Energia
Berriztagarriak



LAB sindikatuko delegatuek Ibarako kultur etxearen alboan egin zuten elkarretaratzea, atzo. E. MAIZ

Hamahiru minutuko isilunea, aurten hildako langileengatik

LAB sindikatuak elkarretaratzea egin du 2020 urtean hil diren hamahiru langileengatik; gogoan izan dituzte Zaldibarko bi langile lurperatuak

Eneritz Maiz Etxarri Ibarra

Hamahiru minutuko elkarretaratzea egin du LAB sindikatuak, Ibarra, urte honetan hamahiru langile hil direla salatzeke. 2020 urte hasieratik hamaika langile hil dira, eta oraindik Zaldibarko zabortegean lurpean dauden langileak gehitu dizkiete.

Urtetik urtera lan ezbeharrak ugalduz doazela dio sindikatuak. «Azken hamar urteetan 648 langile hil dira, eta aurten, 11 hildako horiei Zaldibarren lurperatuta dauden beste bi langile gehitu behar zaizkie», adierazi du Yoana Mendez LAB sindika-

tuko kideak. Arazo «sozial eta estrukturala» dela azpimarratu du: «Ez du ematen gaia azaleratzeko interes handiegirik dagoenik euskal gobernuaren aldetik, ez eta patronalaren aldetik ere».

Egiturazko «arrazoi argiak» daudela azaldu du Mendezek: «Prekarietatea, enpleguaren kalitate eskasa eta prebentzio neurri egokiak ez hartzea dira hauen oinarri. Hau da, azpikontratazioa, kontratu partzialak, lan erritmo biziak, formazio eza, eta abar luze bat».

LAB sindikatuaren ustez, honen guztiaren atzean, interes garbiak daude: «Batzuk diru

gehiago irabazi nahi dute, beste batzuen kontra. Egutero-egutero, batzuk diru gehiago irabazteko, gero eta gehiago dira beraien bizitza arriskuan jarri behar duten langileak, eta baita bizia galtzen dutenak ere».

«Istripuen gorakada ezin dugu jarri jarduera ekonomikoaren hazkunderaren ondorio moduan, erakundeek esaten diguten bezala. Guretzat prekarietatearen politiken ondorio dira», nabarmendu du Mendezek. Era berean, lan osasunean ematean den «kontrol eza» salatu du: «Confes-
basketik ez du honi buruz hitz egin nahi, eta Osalanek gizarte

osoaren porrota dela esaten du», dio.

Irtenbideak badituztela ekarri du gogora: «Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea; lan osasun politikak errotik aldatzea; enpresen gaineko kontrola, ikuskaritza eta zehazpen eredugarriak areagotzea; eta lanbide gaixotasunei beharrezkoa duten zentraltasuna ematea lan osasun politiketan».

Bukatzeke, Zaldibarko zabortegean gertatutakoa salatu dute: «Bi langile desagertuta daude duela 12 egunetik. 48.000 herritar alerta egoeran jarri ditu Osakidetza kutsadura maila altua delako, eta informazio aldetik zehaztasun eta aholku falta nabaria da».

Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak, Osakidetza eta Osalan, berriro ere, «arduragabekeriak» jotzen ari direla adierazi dute. «Argia da duten noraeza, eta tartean lehendakariak desagertuta jarraitzen du, baina, ez zabortegeko zaborraren azpian, noski».

LABek sindikatu moduan, «ardura handi bat» dutela azpimarratu du: «Zer gertatzen da kalean lanean dauden langileekin? Zein aholku daude beraientzako? Hor daude kale garbiketa egiten dutenak, zama lanak egiten dituztenak, obretan lanean daudenak,... hauen zatia ez dago aholkurik». Prebentzio neurriak ez dagoela dio, eta Eusko Jaurilaritza, Lan Ikuskaritza eta Osalan langile hauei eman beharreko aholkuak emateko exijitzen diote, eta «horren inguruko neurriak hartu ditzatela».

Agerraldia ez du bukatu nahi izan LAB sindikatuko ordezkariak, Zaldibarko bi langileak aipatu gabe: «Nahikoa da. Bada garaia langile hauek ateratzeko, eta beraien familiei atseden pixka bat emateko». Ez dagoela honetarako eskubiderik aldarrikatu du: «lanetik bizirik, osorik eta osasuntsu bueltatu nahi dugu».

Ikaztegiak azokan postua jartzeko izen ematea zabalik

IKAZTEGIETA // Ikaztegiak Kultura batzordeak udazkenetik udaberrira aldatu du azoka eguna. Aurten, maiatzaren 9an egingo dute, eta bertan postua jarri nahi duten herritarrek izena eman beharko dute hilaren 26a baino lehen udaletxean. Zein motatako postua izango den zehaztu beharko da. Horrez gain, batzordeak bilera egingo du, hilaren 27an, 18:00etan, udaletxean. Lehenik eta behin azoka egunari helduko diote, eta ostean, festei begira ariko dira.

Irakurle taldeko lehen solasaldian, 'Piztiaren begiak' liburua

ALEGIA // Alegiako Irakurle Taldeak lehen saioa egingo du martxoaren 12an, osteguna. Alberto Ladrón Aranaren *Piztiaren begiak* eleberria aztertuko da 18:00etatik aurrera, eta dinamizatzaile lanak Amaia Goikoetxeak egingo ditu. Irakurle taldera joan nahi duten guztiek baldintza bakarra bete behar dute: aztertuko den liburua irakurrita joatea, saioaren ardatza bera izango delako. Bigarren saiorako hitzordua ere jarria dute. Maiatzaren 21ean Amets Arzallusen *Miñan* liburua aztertuko dute.

Alegiako udaletxe eta kultur etxean, ordutegi aldaketak

ALEGIA // Alegiako kultur etxeko eta liburutegiko ordutegiek aldaketak izango dituzte inauterietan. Gaur eta bihar, goizez soilik egongo dira zabalik, 10:00etatik 13:00etara; 24an eta 25ean itxita egongo dira. Udaletxea, gaur, 13:00etan itxiko dute.

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Larrartek eta Oriakok, emaitza ezin hobeak

Erredakzioa

Gipuzkoa Ogi Berriko Eukene Larrarte tolosarrak Tania Calvo taldekidearekin batera, Espainiako madison txapelketa irabazi du. Horrez gain, Kopako azken jardunaldian, tolosarrak lau probetatik laurak irabazi ditu, sailkapen nagusian hirugarren eginez. Naia Amondarain ibartarra, Irene Usabiagarekin, bigarren izan da madisonean, eta seigarren Koparen sailkapenean.

Bestalde, Oriako-Limousin taldeko txirrindulariei dagokionez, Kopako omnium probetan, junior mailan, Kattalin Iriondok seigarren amaitu du omniuna,

puntuaziokoan garaituz, eta Arkaitz Garmendia puntuazioan zortzigarren izan da. Kadetee-tan, Eneko Arozena kanporaketan laugarren izan da. Abiadura probetan Amaia Astarloak bere lehenengo bi probetan laugarren egin du. Urko Vidal abiadura probetako sailkapen nagusian hirugarren izan da, 200 metroetan laugarren, abiaduran hirugarren eta keirinean bigarren izanik. Yon Mikel Artola, laugarren keirinean. Eneko Arozenak madisonean Espainiako Txapelketan bigarren egin du, Beñat Garaiarrekin bikote eginez, eta Yon Mikel Artola laugarren, Aimar Gorriñoabeaskoarekin batera.

Ibarrako sokatiralariak, Euskal Herriko txapeldun

Gizonezkoek lortu dute txapela, 560 kilotan; txapelketa mistoan hirugarren postua lortu du Ibarrak

Erredakzioa Ibarra

Euskal Herriko Txapelketa irabaztea lortu dute Ibarako gizonezko tiralariek, 560 kiloko mailan. Zortzi tiralariz osatutako taldea, Lesakako Beti gazte eta Gaztediko Laukiz taldearen aurretik geratu ziren. Txapela esku-ratzearekin batera, gaurtik igandera Letterkenny (Irlanda) herrian izango den Munduko Txapelketan Euskal Herria ordezkatzeko aukera izango dute.

Ibarrako emakumeek, bere aldetik, bosgarren postua lortu zuten 500 kiloko mailan. Badaio-tzek (Abetxuko), Txantreak (Iruñerria) eta Beti Gaztek (Lesaka) osatu zituzten lehen hiru postuak. Larunbatean jokatu ziren bi txapelketa horiek, Berriozarren. Emakumeei dagokionez, hirugarren eta azken jardunaldia izan zuten jokoan. Gizonezkoen txapelketa jardunaldi horretan bakarrik jokatu zuten. Euskal Herriko goma gaineko txapelketan, neska zein mutilen mailarik txikienean tira zuten Ibarako tiralariek.

Igandean txapelketa mistoa izan zuten jokoan, Ezkabarten (Nafarroa). Lau neska eta lau mutilen osatutako taldeek parte hartzen dute txapelketa mistoan, eta 580 kilotan sartu behar izan dute tiratzaileek. Hirugarren postua lortu zuten Ibarakoek, zazpi aurkarien kontra aritu ostean: Berriozar, Beti-Gazte, Txantrea, Antsoain, Bizindar,



Euskal Herriko txapela jantzi duten Ibarako tiralariek. ATARIA

Gaztedi A eta Gaztedi B. Beti Gazte nagusitu zen, eta Txantrea izan zen bigarren.

MUNDUKO TXAPELKETARA

Atzo abiatu ziren 22 kirolari Ibaratik Letterkennyra, Munduko Goma gaineko sokatira txapelketan parte hartzera. Hain justu, atzo bertan zuten pisaketa eguna. Ondoren, gaur eta bihar talde moduan lehiatuko dira Ibarra izenpean, gizonezkoen eta emakumezkoen mailan, zein txapelketa mistoan. Gizonezkoen 560 kiloko mailan lehen postua borrokatzeko asmoz joango dira.

Larunbatean eta igandean, berriaz, nazioen arteko lehia izango da, eta Ibarako gizonezkoen 560 kiloko taldea izango da Euskal Herria ordezkatzeko duena. Ibarako tiratzaileak izango dira batzuek ere Euskal Herriko selekzioa osatuko dutenak maila horretan, eta agian beste talde batzuetako kirolariak ere sartuko dira. Bestalde, 23 urtez azpiko emaku-

mezkoen Euskal Herriko taldean, Ibarako bi tiratzailek parte hartuko dute.

Munduko Txapelketa bi urtez behin egiten da. Euskal Herriko tiratzaileez gain, aurtengoan parte hartuko dute Irlanda, Errusia, Txina-Taipei, Herbehereak, Hego Afrika eta Alemaniako kirolariak. Txinako tiratzaileak izan ohi dira aurkari gogorrenak.

Xareko Masters Txapelketan, lehen aldiz emakumezkoak

Erredakzioa Irura

Xareko Masters Txapelketan lehenengo aldiz parte hartuko dute emakumeek, eta guztiak Irurako Ametsa pilota elkarteko kideak izango dira. Nagore Goe-naga eta Nahia Gorriti bikoteak, eta Nora Galartza eta Irati Fernandez bikoteak jokatu dute. Hazparneko Berria trinketeen jokatu dute, gizonezkoen txapelketaren lehen partidaren aurretik, bihar, 18:30etik aurrera.

Gizonezkoen txapelketan bi irurarrak parte hartuko dute. Joxi Lopetegik bikote Oihan Borteyru izango du, eta Julen Apeztegiaren bikotea Joanes Arrosagaray izango da. Astelehenean elkarren aurka jokatu dute, 19:00etatik aurrera.

Master Cupeko final zortzirenak, jokoan

Erredakzioa Berastegi

Emakume Master Cup eskuz binakako txapelketaren final zortzirenak jokatu dira, pilota goxoarekin, larunbatean, Berastegiko frontoian, 17:00etan hasita. Ane Arteaga eta Maider Mendizabal anoetarra, Maite Tolosa amezketarra eta Eneritz Arrieta-ren aurka; Andrea Aldaregia eta Ane Urkizu berastegiarrak, Arantxa Arratibel eta Aisha Etxeberrria amezketarraren aurka; Uxue Larrea ikaztegiatarra eta Lierni Gartziarena berastegiarrak, Irati Ugalde eta Izaskun Martinen aurka; eta Oihana Unanue eta Nagore Aramendi, Nagore eta Leire Galeanoren aurka. Pilota mistoarekin final zortzireneko partida bat ere jokatu dute.

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

OHOREZKO KADETE MAILA
Larunbata 22, 15:30tan
BILLABONA F.K.E.
-
MARTUTENE K.E.



1 EUREKA zientzia museoa

Bi lagunentzako bina sarrera konbinatu (museo eta planetariuma)

www.eurekamuseoa.es/eu
943012478

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 BASONDO fauna babeslekua

Familiarentzako sarrera bikoitz bi (nagusia+umea)

94 625 44 36
www.basondo.com/eus/
info@basondo.com
Kortezubi (Bizkaia)



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 EREIN argitaletxearen 2 liburu



AZKEN LANHUTARRA - Nerea Loiola
ALDIBEREKO - Ingeborg Bachmann.
Itzulp.:Idoia Santamaria
parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



OSTEGUNA, 2020KO OTSAILAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baiarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

BABESTUTAKO EDUKIA

Guztien eskura dagoen gutizia

Gastronomia gustuko duten horientzat ere bada Bidania-Goiazko Iriarte Jauregian dagoen Bailara jatetxea. Garaian garaiko produktuekin osatzen dute menua, beti ere, «zerbait berezia» eskainiz.

«Tolosaldeko, Goierriko eta Urolako gutizia zaleentzako leku paregabea». Horrela deskribatzen du Iban Muñoak familiarekin batera Bidania-Goiazko Iriarte jauregian daukaten Bailara jatetxea. 2013tik ari dira lanean «jateko gustua» daukan edonorentzat. Hotel bat ere badaukate eraikin berean, toki lasai batean gaua igaro nahi dutenentzat.

Enrique Fleischmann sukaldari ezaguna dute proiektuan bidelagun. Bailarara iritsi aurretik, ibilbide luzea egin zuen mundu guztiko jatetxeetan barrena. Besteak beste, Karlos Argiñanoren, Juan Mari Arzakekin eta Akelarre jatetxean lan egindakoa da. «Bailara jatetxea aurkezten zaion momentuan bera jada maila handiko sukaldari profesionala zen», azaldu du Muñoak. Iriarte jatetxea erakutsi ziotenean, bertan dena zeukala ikusi zuen: toki, etxe eta sukalde zoragarri bat, hau da, lan egiteko toki

ezin hobea. «Oso gustu oneko proposamena egiten dugu: zaporea bilatzen duena, sinplea eta erraz ulertzen dena», ziurtatu du Muñoak. Horretarako, produktuan jartzen dute arretra: «Bertako produktuekin egiten dugu lan, bertako zaporeak aurkezten ditugu, eta beti azaltzen dira Fleischmannen bizipenen ukituak».

Garaian garaiko produktuekin osatzen dute menua, eta urte osoan eskaintzen dituzten platerak ere badauzkate. «Saltsa eta transformazio guztiak gure sukaldian egiten ditugu egunero», erantsi du Muñoak. Horrela, badakite zehazki zein produktuekin ari diren lanean. «Hori lan gehigarri bat da, baina eskertzen da jaten duzunean», azpimarratu du. Errezeta guztiak originalak dira, Enrique Fleischmannek egindakoak, beraz, dena da desberdina.

Bailara jatetxeak bazkari edo

afari arrunt batetik harago doan zerbitzu ematen die bezeroei. Horretarako, produktuetan ez ezik, estetikan eta ingurunean ere jartzen du arretra: «Sukaldaritza horri kokapena gehitu behar zaio: lorategi izugarri bat, etxea... baita zerbitzua eta xehetasun guztien zaintza ere».

Jangela txikia daukate, eta horrek ematen die ahalmena xehetasun txikiaren ere arretra jartzeko. «Aperitibo bereziak eskaintzen dira, eguneko irudimenaren arabera, eta kafearekin ere etxean egindako pastak ematen ditugu», azaldu du Muñoak. Gainera, bazkaldu eta afaldu ondoren ere jarraitzen du esperientziak: «Lorategira atera zaitezke edo bertako saletara joan kopa bat hartzera eta arratsaldean tertulia jarraitzera. Azkenean, plan orokor bat bihurtu daiteke bisita».

Gozatu nahi duten gutizia zale

Jangela txikia du Bailarak eta horrek xehetasun guztiak zaintzeko aukera ematen die. ATARIA



Iriarte Jauregia leku paregabea dago. ATARIA

guztiekin irekita dituzte Bailara jatetxeko ateak. «Lan egiten dugu ospakizun txiki edo handiak egin nahi dituztenentzat, gau berezi bat nahi duenarentzat edo gaur gaur delako bazkari edo afari bat egin nahi duenarentzat». Etorkizunera begira ere lan eta lan jarraitzeko asmoa daukate, inork ez duelako ezer oparitzen. «Mugarik gabeko proiektu bat

da, eta irudimenari lekua eginez, ilusio berriekin jarraituko dugu». Muñoak argi dauka: Bailara jatetxeko esperientzia probatzen duenari gustatzen zaio, eta aurrerantzean ere gastronomia zaleentzat zerbitzu berria eskaintzen saiatuko dira. «Bisitatu nahi gaituzten guztientzat egiten dugu lan, eta zuretzat ere bai».


BAILARA
RESTAURANT

**ZURETZAT
ERE BADA**



Eliz Bailara, 8 - 20496 BIDANIA-GOITZ [GIPUZKOA] | T. +34 943 681 234 | bailara.com

IRIARTE JAUREGIA *** HOTEL